

ARTE UDALEKUAK 2024

BEGIRALEAK ALDI-BATERAKO KONTRATATZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK

1- DEIALDIAREN XEDEA:

Oinarri hauen xedea da begiraleen aldi baterako kontratazio laboralak arautzea, Oñatiko Udalak antolatu duen "Arte udalekuak 2024" deialdia dela eta. Arte Udalekuak ekainaren 24tik uztailaren 19ra izango dira, biak barne.

Arte udaleku hauek, LH3 eta DBH3 bitarteko adina duten hurrei zuzenduak izango dira, bertan, marrazketa, margotzea eta eskultura landuko direlarik, beste batzuen artean.

Kontratuaren iraupena ekainaren 24tik uztailaren 26ra artekoa izango da.

Halaber, hautatuak diren lagunak, arte udalekuen aurretik egun batetan udalekuen programazioa, prestakuntza eta beharrezko kudeaketak egiteko bertaratzea ezinbestekoa izango da. Era berdinean, udalekuak bukatzerakoan; bukaerako itxiera, jasotzea, balorazioa eta udalekuen memoria garatu beharko dute beste egun batetan.

Erreserbako zerrenda baten parte izatera pasako dira kontratatu behar direnak baino lagun gehiago badira. Kontratazioak egiterakoan, uko edo baja egoera baten aurrean erabiliko da zerrenda hori.

2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren 49.1. d) xedapenari jarraiki, langileak lan kontratua sinatutakoan gero uko egiten badu, 15 egun naturaletako aurrerapenarekin jakinarazi beharko dio udalari. Oñatiko Udalak ukoak penalizatu ahalko ditu hurrengo urteetako begiraleen hautaketa prozesuetako puntuazioetan; penalizazio hau 5 puntu artekoa izan ahalko da.

2-PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK:

Onartua izateko eta hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- 1- Lan-kontratua egiterako egunean 16 urte beteta izatea eta derrigorrez erretiratzeko adina ez gainditzea.
- 2- Artea Batxilergoko titulua izatea edo Arte Ederretako graduaren lehenengo ikasturtea (edo baliokidea), gutxienez, gainditua izatea.
- 3- 3. hizkuntza eskakizunaren pareko euskara maila izatea.
- 4- Funtzioak behar bezala betetzea eragotz dezakeen gaixotasunik nahiz muga fisikorik edo psikikorik ez izatea.
- 5- Inolako administrazio publikoaren edo autonomia erkidegoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik diziplina-espedita bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.
- 6- Haurtzarora eta adoleszentiaren babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeko 8.artikuluaren arabera, sexu delitugileen Erregistro Zentraleko agiri negatiboa izatea
- 7-. Kontratazio hau beste lan kontratu edo funtzionario izendapen batekin ez da bateragarria izango

Lan kontratua egiteko unean eta indarrean dagoen bitartean, kontratatuek bete beharko dituzte ezarrita dauden baldintza guztiak.

3-ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Epea: 2024ko martxoaren 27tik apirilaren 11ra, biak barne.

Lekua: [Oñatiko Udaleko Zerbitzu Telematikoetan](http://www.oñati.eus), Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) edo Posta bulego batean.

Era berean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazio Guztien Zuzenbide Arauen eta Administrazio Jardunbidearenak, 16.4 artikuluan izendatzen dituen bideetatik ere aurkez daitezke eskaerak. Oñatiko Alkateari zuzenduko zaizkio, eta instantziak aurkezteko epearen barruan dagokion funtzionarioak emandako data eta zigilua eduki beharko dute. Antzeman litezkeen okerrak edozein unetan zuzendu ahal izango dira ofizioz edo interesatuak hala eskatuta.

4- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

-Eskaera orria beteta (www.oñati.eus web gunean zein Oñatiko Udaleko HAZan eskuragarri egongo da).

Kontratatu izateko hautatuen artean geratzen ez bada begirale tituluari dagokion zati praktikoa bertan egiteko interesa ere adierazi daiteke eskaera orrian. Praktika hauek egiteak ez du ordainsaria jasotzeko eskubiderik sorraraziko.

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Oñati Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, lanpostua eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze ondorengo informazioa kontsultatuko du zuzenean:

- NANA.
- Arteetan batxilergoko titulua
- Arte Ederretako Graduaren (edo baliokidearen) titulua, amaituta izanez gero
- Hizkuntza eskakizunak, izanez gero.
- Sexu delitugileen Erregistro Zentraleko agiri negatiboa.
- Lan bizi agiria
- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien fotokopiak.

Bestalde, ezinbestez aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengoa da:

- Arte Ederretako Graduaren aurreneko ikasturtea (edo baliokidea) gainditu izana kreditatzen duen agiriaren fotokopia.
- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak.
- Prestakuntza ikastaro ez formaleko agiriak.
- Titulu propioen agiriak (ez ofizialak).
- Euskara titulu ez ofizialen agiriak (graduarekin jasotakoak...).

Nisae elkarreragingarritasun-nodoan lanpostua eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten egiaztatze aukerari uko egiten bazaio, dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan osatuta aurkeztuko dira 2024ko martxoaren 27tik apirilaren 11ra arteko epean (epe horretan jaso ez direnak kanpo utziko dira).

Eredu ofizial hori Oñatiko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoan 07:30-15:30 bitartean, astelehene ostiralera (Aste Santuetan ordutegia aldatu daiteke) eta udalaren webgunean (www.oñati.eus) egongo da eskuragarri.

Era berean, merituak egiaztatzeko dokumentazioa Oñatiko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko da, ondoren zehazten diren bideetako bat erabiliz:

- Oñatiko Udaleko erregistroa (Foruen enparantza 1, 20560, Oñati).
- Oñatiko Udalaren www.oñati.eus egoitza elektronikoa [erregistro elektronikoa](#) bidez.
- Posta bulego batean: gutun azal ireki batean eraman behar da eskabidea postetxeko enplegatuek data eta zigilua jartzeko, aurkezteko epearen barruan. Horrela bakarrik ulertuko da eskabidea posta bulegoan utzi zen egunean izan duela sarrera Oñatiko Udaleko Erregistroan.
- Aplikagarria den araudiak dioen beste edozein eratan.

OHARRA: Haurtzaroa eta adoleszentziaren babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeko 8.artikuluaren arabera sexu delitugileen Erregistro Zentraleko agiri negatiboa, Oñatiko udalak deituta burutuko diren prestakuntza-saioretako aurrenengo saiora bertaratzean aurkeztu beharko da. Data hori kontuan izanda gehienez ere 3 hilabetetako aurretiaz emandako agiriak onartuko dira. Agiri hau Bilboko Elkano kalea 9,7 kokatzen den Lurraldeko Gerentzian ateratzen da.

5-EPAIMAHAIA KALIFIKATZAILEA

Epaimahai kalifikatzailea Oñatiko udaleko 5 kidez osatua egongo da :

- Epaimahaiburua: Ion Lopez Santamaria, Haur eta Gazteria Teknikaria
- Iñigo Roldán Catalán, udaleko idazkaria
- Paskual Elustondo Darpon, udaleko kontu-hartzailea
- Xabier Zabaleta Etxabe, Euskara Teknikaria
- Epaimahaiko idazkaria: Izaskun Querejeta Agirre, GGBB eta Antolakuntzako AOTa

6. IZANGAIEN ONARPENA

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako izangaien behin behineko zerrendak onartu eta argitaratuko dira Oñatiko Udalaren iragarki taulan eta web orrian (www.oñati.eus).

Onartutakoen zerrendatik baztertuak izan direnek hiru egun naturaleko epea izango dute, zerrendak iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, baztertuta geratzea eragin duten akatsak edo ez-egiteak zuzentzeko, edo zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betiko bihurtuko da, baldin eta erreklamaziorik ez bada aurkezten. Ebazpen horretan behin betiko zerrenda onartuko da, eta lehen esandako eran argitaratu egingo da.

7. OPOSIZIO FASEA

EUSKARA Froga: 3 HEaren pareko ezagutza maila egiaztatzekoa.

Lehenengoko ariketa eta bakarra.

Deialdiko 2. oinarrian eskatutako euskara maila egiaztatzeko agiririk aurkeztu ez dutenek, eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute dagokion frogaren bitartez. Udalak alderantzizkoa esaten ez duen bitartean, EUSKARA FROGA egiteko behin betiko data maiatzaren 3a da.

Azterketa honek ez du inolako balio ofizialik izango 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko. Lanpostu honen hautaketa prozesuan parte hartzeko besterik ez du balioko, eta lortutako emaitzen arabera, hautagaiak Gai/Ez gai bezala sailkatuko da. Beste urte batzuetan lanpostu honetarako Oñatiko Udalak egindako froga gainditu zutenek ez dute berriro egin beharko, eta eskaera orrian adierazi beharko dute.

Ariketa hau ez dute egin beharko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan eta euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratua egokitzeko aplikagarria den araudian ezarritako aukeren bidez gainditu dutela ziurtatzen duten izangaiek, hain zuzen 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea den titulu baten jabeek.

8. LEHIAKETA FASEA

Ondorengo irizpideei ezartzen zaizkien puntuazioen arabera, hautagai bakoitzaren puntuazioa aterako da eta horren arabera lortuko da kontratazioa egiteko erabiliko den hurrenkera. Puntuagarri den guztia egiaztatu beharko da puntuatua izan dadin.

* Titulazioa:

- Arte Ederretako graduaren 1. ikasturtea gainditua izatea (edo baliokidea) nahita nahitaezkoa izango da aurkezteko, eta hortik gora gainditutako ikasturte bakoitzak puntu 1 emango du.
- Artearekin lotutako goi-mailako beste ikasketa erregulatu batzuk ere puntuagarriak izango dira (graduak, doktoradutza, lanbideko goi-mailako zikloak,...); lanpostuaren funtzioekin duen loturaren arabera baloratuko da gainditutako ikasturte bakoitza, gehienez ere puntu 1 emango zaiolarik.

* Prestakuntza-ikastaroak:

- Marrazketa, margoketa, eskultura edota artearekin lotutako ikastaroak: gehienez ere 0,01 puntu orduko. Prestakuntza ikastaroen kontzeptuan ezin izango da 4 puntuko muga gainditu.

* Euskara:

- 4HE edo baliokidea: 1 puntu

* Lan-esperientzia:

- Oñatiko udaleku irekietan, edo arte udalekuetan begirale esperientzia izatea: 30 eguneko, 2,5 puntu.
- 2021eko UDAKO ZAINZA zerbitzuan begirale esperientzia: 30 eguneko, 2,5 puntu.
- Arte udalekuetan begirale gisa esperientzia izatea: 0,050 puntu/orduko edo 0,2 puntu/eguneko
- Artearen inguruan irakasle lanak eginga izatea: 0,025 puntu/orduko edo 0,1 puntu/eguneko.

9 -IZANGAIEN ZERRENDA.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa lehiaketa-fasean lortutako emaitzen batura izango da.

Berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez-hurren:

- 1.- Arte ederretako lizentziatua izatea.
- 2.- Arte udalekuetan begirale gisa edota artearen inguruan irakasle gisa lan-esperientzia egiaztatua.
- 3.- 4 HE edo baliokidea.

Hautaketa bukatu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak lortutako puntuazioaren arabera zerrenda argitaratuko du Oñatiko Udaleko iragarki taulan eta web orrian. Era berean, onarpen-proposamena egingo dio organo eskudunari.